

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA


IZENA ETA LEGE-ARAU BIDEA

- 1.- artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko **ODOLGARBI ZALDI LASTERKETEN ZALETASUNA SUSTATZEKO ARRAPIDE TURF ELKARTEA** izeneko **elkartea** eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.


Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlearitzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen **HELBURUAK** honako hauek dira:

- 
- Odolgarbi zaldien lasterketen zaletasunaren sustapena.
 - Gurean historikoki erdarazkoa izan den zaletasun honetan euskararen presentzia hedatzea.
 - Euskal Herrian odolgarbi zaldien hazkuntza ezagutaraztea.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK** egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- 
- Odolgarbi zaldi lasterketei buruzko euskara hutsezko webgune bat sortu eta sare sozialetan ere presentzia izan.
 - Zaldi lasterketen munduko terminologia euskaraz jasoko duen hiztegi bat osatu.
 - Zaldi lasterketak ezagutzen ez dituztenen artean kirol honen hedapena sustatu, Zubietako hipodromoa ardatz hartuz. Horretarako, besteak beste, honelako jarduerak egingo dira:
 - Zubietako hipodromora bisitak antolatu.
 - Beste hipodromoetara txangoak antolatu.
 - Zaldi haztegiara bisitak antolatu.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2QF6-ZXTB bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2QF6-ZXTB en la sede electrónica <https://euskadi.eus/localizador>

- Lasterketeki buruzko lehiaketak eta zozketak martxan jarri.
- Zalditegi baten jardunean parte hartu.
- Antzeko ekintzak.

z

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen egoitza nagusia: **ERREKATXIKI KALEA 27 zk., 3. pisua Usurbil herria, 20.170 Posta Kodea**

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak:

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernua eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:
- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
 - Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a. Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.
- e. Elkarrekin desegitea.
- f. Presidentetza, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g. Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organori eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartzeko.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 50ak eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a. Estatutuak aldatzeko.
- b. Elkarrekin desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez bost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren

deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoak edo ordezkatuak gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Elkartea desegitea.
- b. Estatutuak aldatzea.
- c. Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek edozein bazkideren utzi dezakete beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.

Bazkide bakoitzak bost bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

- **Presidentetza**
- **Idazkaritza**
- **Diruzaintza**

Diruzaintza-eginkizuna elkarteko idazkaritzak bete dezake.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara **5 aldiz jarraian**, edo, **tarteka 3 aldiz** agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak.

Kargu horiek **5 URTERAKO** izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b. Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.-Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.
Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.-Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a. Agintaldia bukatzen denean.
- b. Dimititzen dutenean.
- c. Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d. Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e. Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoa "a)" idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoa b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.-Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- a. Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b. Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c. Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d. Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e. Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g. Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.-Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidentetzak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentetza izango da, ez balego, presidenteordetza; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentetzaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTETZA

22. artikulua.- Elkarteko presidenteak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDETZA (EGONEZ GERO)

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteak ordezkaturiko du. Era berean, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINTZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BATZORDEKIDEAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datxekzien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

BESTE KARGUAK

27. artikulua bis.- Kargua adierazi eta eskumenak:

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

Pertsona fisikoak: Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoak: Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkidetutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

1. Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
2. Elkarteen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkarteen kontu-egoerari eta elkarteen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
3. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarteen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
4. Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
5. Elkarteen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
6. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta

- elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-
organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 8. Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea
(elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
 9. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa
kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak
jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean
soilik oinarritu daitezke.
 10. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten
konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.- Hona bazkideen betebeharrak:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako
ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki
horiek betetzea.

BAZKIDE –IZAERA GALTZEA

32. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, deseginez gero).
2. Bazkidea bere borondatez joanez gero.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako
betebeharrak modu larri ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera
gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei
dagokienez.

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

33. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz
Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek
zehatu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko
zehapena ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zehatuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki
dezake presidentetzak. Ikerketaren instruktoea idazkaritza izango da, eta berak
proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zehapena ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan
parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zehapena ezarri aurretik interesdunari
entzunaldia eskainiko zaio. Zehatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki
horren aurkako errekurtoa jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

34. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten
badu, hau da, Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo

Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidentetzak idazkaritzari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidentetzak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zehapen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.- Kanporatzeko zehapen-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai- zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedientekeko instruktorea izan den idazkariak.

Behin behineko kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze- espedientea Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide- eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeke.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.- Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegiara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen HASIERAKO – ONDAREA **100 eurokoa** da.

39. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a. Ondare-ekarpenak.
- b. Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c. Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d. Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urte betekoa izango da, eta urte

bakoitzeko **abenduaren 31an** itxiko da.

Elkarteek jarduera ekonomikoak —zerbitzu-emateak barne— egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo bazkideekin ezkontzaren antzeko harreman afektiboa tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinok ezin zaizkie dohain laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkarte honako kasuetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxienezko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

44. artikulua.- Elkarte deseginez gero, horixe erabakitzen duen batzar orokor ezohikoak Batzorde

Likidatzaile bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarre-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarre-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behineko izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetakoa aginduak aldatuko.

PRESIDENTEAREN SINADURA

A stylized, handwritten signature in blue ink, consisting of a large, sweeping 'P' followed by a series of loops and a final downward stroke.

IDAZKARIAREN SINADURA

A stylized, handwritten signature in blue ink, featuring a large, circular 'I' followed by a series of loops and a final downward stroke.A stylized, handwritten signature in blue ink, consisting of a large, sweeping 'P' followed by a series of loops and a final downward stroke.A stylized, handwritten signature in blue ink, consisting of a large, sweeping 'P' followed by a series of loops and a final downward stroke.